

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI BERRIAK

Stock Azokarekin zita, bihar eta etzi

Stock Azoka antolatu du Berriak merkatari eta ostalarien elkar-teak, Plaza Berrin. Bihar eta etzi jarriko dituzte postuak, herriko hainbat dendak: biharkoan, goizez (10:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-20:00); eta etzi, goizez bakarrik. ■

■ ASTIGARRAGA 4X4 KOTXEAK

4x4 kotxeekin, urteroko zita larunbatean

Zarkumendegiko futbol zelaiaren atzeko aldean prestatu dute zirkuitua, 4x4 kotxeen trialerako. Arratsaldeko 16:00etan izango da, eta sarrerak bertan egongo dira salgai, 2 euroan.

BUELTAN da Astigarragan, beste urte batez, 4x4 kotxeen ikuskizuna. Larunbat honetarako jarri dute zita, Astigarragako 4x4 Trialaren seigarren edizioa jokatzeko.

Zarkumendegiko futbol zelaiaren atzeko aldean prestatu dute zirkuitua, eta arratsaldeko 16:00etan hasiko da proba. Bertan, bost zona izango dituzte, bakoitza zintekin markatuta, eta zuloz josita. Zulo horietan sartu eta ahalik eta ondoren ateratzeko, erakutsi behar dute haien trebezia probako partehartzaileek. Bost zonak osatu behar dituzte denek.

Ia 20 bat kotxe espero dituzte antolatzaileek, gehienak ezagunak; eta izango da astigarrarik ere, tartean.

4x4 triala ikusteko sarrerak, momentuan bertan jarriko dituzte salgai, 2 euroan. ■



Ikusmina pizten du urtero, 4x4 kotxeentzat prestatzen duten zirkuituak.

■ HERNANI BAKAILU ASTEA

Bakailu Asterako izenematea orain, jatetxe eta tabernek

Urriaren 7tik 20ra ospatuko da aurten, Hernaniko Bakailu Astea. Eta bat egiteko gonbitea luzatu diete tabernei, pintxo lehiaketan parte hartuz; eta jatetxeei, aste horretako menu edo kartan bakailua jarri. Horretarako, irailaren 11ra arte dute izena emateko epea: Biteriko turismo bulegoan (astegunetan 08:00-15:00), 943 33 70 28 telefonoan edo turismoa@hernani.eus helbidean; edo Berriak elkartearen bidez (943 33 30 49). ■

■ ASTIGARRAGA IKASTAROA

Doako tailerra etzitik, konfiantza indartzeko

Astigarragako Emakume Feministen taldeak antolatuta, ikastaroa izango da iraileko ostiral guztietan, lantzeko «norbere ezagutza eta onarpenerako kontzientzia, eta barne konfiantza indartzeko tresnak». Etzi hasiko da, eta kultur etxean izango dira saioak, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Urriaren 5ean, azkeneko saio bat egingo dute ikastolan. Izenematea zabalik dago: aztifemiak@gmail.com helbidean, edo kultur etxean. ■

■ HERNANI KONTRAKANTXA GAZTETXEA

Mahai ingurua larunbatean, Pablo Haselekin eta GRAPO, PCE(r) eta ETako kide ohiekin

'Erresistentzia antolatu' jardunaldiak egingo dituzte, Kontrakantxa gaztetzearan. Arratsaldeko 18:30etan izango da mahai ingurua, eta kontzertuak 22:30etan, Haselekin eta Droga Púrpurarekin.

ZITA bikoitza jarri du Kontrakantxa gaztetzearan, larunbaterako. Erresistentzia antolatu jardunaldiak prestatu dituzte, eta mahai ingurua zein kontzertuak izango dira, arratsaldean eta gauean.

Arratsaldeko 18:30etan ha-

siko dute mahai ingurua, Erresistentzia iragana ardatz, oraina borrokatu izenburupean. Bertan hartuko dute parte Pablo Hasel rapero kataluniarrak, eta GRAPO, PCE(r) eta ETako kide ohi banak, hirurak ere preso izandakoak.

Etia mahai inguruaren ondoren, bi kontzertu izango dira, gaueko 22:30etan hasita, gaztetzearan bertan. Hori horrela, Pablo Haselek berak eskainiko du kontzertuetako bat, eta Droga Púrpura disko jartzaile gasteiztarrek, bestea.

Bildutako dirua, erresistentzia kutxa nazionalera
Kontrakantxa gaztetzetik aurreratu dute, era berean, egun osoan zehar lortutako etekin ekonomikoa, bideratuko dute-la Errakiren erresistentzia kutxa nazionalera. ■

■ HERNANI CHILLIDA-LEKU

Beñat Achiaryren kontzertua, gaur

Udarako programari bukaera emateko, Beñat Achiary abeslari eta musikaria izango da Chillida-Lekun gaur, Haratago taldearekin batera. Arratsaldeko 19:00etan izango da, eta sarrerak salgai daude: tickets.museochillidaleku.com. ■

YABEN ENGLISH SCHOOL
HERNANI
ikastegia

2019 / 20 IKASTURTEA

MATRIKULA IREKITA
Irailaren 2tik 10era
Ordutegia: 10.00 - 13.00 eta 17.00 - 20.00

YABEN: Andreakale 60 ☎ 943.331763
YABEN K&S: Perkainegi 13 ☎ 943.331763

Cambridge English Language Assessment
Exam Preparation Centre

KET Nahiane Agirre Nerea Arrospide Ane Ayeztaran Manex Ayeztaran Saioa Gonzalez Lide Irazu Aritz Liceaga	PET Naia Aguado Enara Ortega Martin Arundarain Irati Lerchundi Nerea Saez Pera Roi
--	---

FIRST
Jon Garmendia
Yanis Aguado
Xabier Garcia
Eneko Garmendia
Ienar Goya
Enara Lopez
Andoni Sudupe
Oier Elzomendi
Andrea Ernasti

ADVANCED
Maialen Tolosa
Ander Leiza
Sira Burrixa
Hegoi Urretabizkaia
Aitor Pagola
Thais Zambrano
Sivia Aguirre
Enara Larburu
Kepa Sarriudo
Mikel Urzulegi

Eskolak irailaren 10ean hasiko dira

www.academiayaben.com

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

musika eskola
DOINU-ZALE
KARABEL ALUZA, 4 - beheko ezberria

MATRIKULA ZABALIK
irailaren 15era arte

KLASEAK ASTE HONETAN HASI DIRA

Ozenki abesbatzaren ensaiok
astearte-osteguna 20:00etan

IRANOL KAMIÑO
musika eskola

943 33 12 33 - 637 85 79 62

GAUR Giro eguzkitsua izango da protagonista gaur, nahiz eta goizean goiz lainoa agertu daiteken. Eguerditik aurrera, behe-lainoak agertuz joango dira, eta iluntzerako nahiko lainotuta geratuko da. Orduan, euritara ere jo dezake. **Min.13° / Max.22°**

BIHAR Giro tristeagoa izango dugu bihar. Lainoak izango dira nagusi zeruan, eta tarteka euria egingo du. Iparraldeko haizea ibiliko da, eta giroak frexkatzera egingo du, tenperatura maximoak dezente jaitsiz. **Min.15° / Max.18°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



EREÑOTZU ANTZERKIA



Sei emakume dira, 'Erlauntza' antzezlaneko protagonista.

Sarrerak salgai gaurtik, 'Erlauntza' antzezlanerako

Irailaren 13an izango da emanaldia, gaueko 22:00etan, frontoian. Sarrerak salgai daude Auzo Udalean, Irrintzin eta Biterin, 10 euroan.

ANTZERKI saioa antolatu dute datorren astean, Ereñotzuko frontoian: *Erlauntza* antzezlan eskainiko du Vaiven Producciones antzerki konpainiak. Ostiralean izango da, irailaren 13an, gaueko 22:00etan hasita.

Eta emanaldia ikusteko sarrerak, gaur bertan jarriko dituzte salgai: Ereñotzuko Auzo Udalean, Irrintzi tabernan, eta Hernaniko Biteri kultur etxean. 10 euro dira.

Ordubate pasatxoko iraupena dauka antzezlanak, eta Mireia Gabilondok zuzenduta, sei emakume dira protagonis-

«Komedia mikatza» da 'Erlauntza', txikitako lagun koadrila bat landetxean elkartuko duena, haietako baten despedida ospatzeko.

ta: Vito Rogado, Getari Etxegarai, Aitziber Garmendia, Leire Ruiz, Naiara Arnedo eta Sara Cozar. Kepa Errasti da testuaren egilea.

«Komedia mikatza» da *Erlauntza*. Txikitako lagun koadrila bat osatzen dute sei emakumeek, eta haietako baten ezkon aurreko despedida ospatzeko, asteburupasa joango dira landetxe batera. Baina urtean eraginez, elkarren arteko lotura estua sentitu arren, ezer ez da garai batean bezala. Horregatik, asteburu *eroa* behar zuena, are gehiago erotuko da: trapu zaharrak, esan gabeko gauzak, esandakoak, alkohola, droga eta erlauntz bat. «Esan ohi da erleak direla animalien erreinuan ondoen komunikatzen diren izakiak, eta dantzan komunikatzen omen dira...», aurreratu dute. ||

kumeek, eta haietako baten ezkon aurreko despedida ospatzeko, asteburupasa joango dira landetxe batera. Baina urtean eraginez, elkarren arteko lotura estua sentitu arren, ezer ez da garai batean bezala. Horregatik, asteburu *eroa* behar zuena, are gehiago erotuko da: trapu zaharrak, esan gabeko gauzak, esandakoak, alkohola, droga eta erlauntz bat. «Esan ohi da erleak direla animalien erreinuan ondoen komunikatzen diren izakiak, eta dantzan komunikatzen omen dira...», aurreratu dute. ||

HERNANI DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Euskara Ari Duri segida emateko, bilera irekia datorren asteartean

Arratsaldeko 19:00etan jarri du hitzordua Dobera Euskara Elkartek, Biterin, iazko egitasmoak «piztutako su txikiari eusteko asmoz».

HERNANIN euskeraren erabilerari indartzeko asmoz, *Euskara Ari Du, Baietz Hernanik!* egitasmoa antolatu zuten 2018 urtean zehar. Eta «arrasto polita» utzi zuela ikusita, egitasmoari segida eman nahi dio Dobera Euskara Elkartek, datorren udazketatik aurrera: «ez da iazko planteamendua bera izango, baina piztutako su

txikiari eutsi nahi zaio», aurreratu dute.

Horren inguruan aritzeko eta «plana zirriboratzeko», bilera irekia deitu dute datorren asteartean, irailaren 10ean, arratsaldeko 19:00etan Biterin. Gaiaren gainean interesa duten herritar guztiak gonbidatu dituzte, bilerara bertaratu eta parte hartzera.

2020an, Euskaraldia berriro herrian txertatzeko asmoa Aurtengo asmoen inguruan aritzeaz gain, datorren urtera begira ere jarriko dira. Izan ere, joan den urtean Euskal Herri mailan antolatu zen Euskaraldia, «bigarren kolpea» izango du 2020an; eta hori «herrian txertatzeko modua» egin nahi dute, aurreratu dutenez. ||

HERNANI ORONA IDEO

Baratzetik platerera bitarteko 'paisaia', lau hitzalditan

Jardunaldiak antolatu ditu Argia aldizkariak, larunbatean, 11:00etan hasita Orona Ideon.

JASANGARRITASUNA oinarri hartuta, *Baratzetik platerera sortzen dugun paisaia* jardunaldiak antolatu ditu Argia aldizkariak, larunbat honetarako, Galarretako Orona Ideo eraikinean.

Goizeko 11:00etan hasita, lau hitzaldi eskainiko dituzte, hasteko: Diametro 200 proiektua aurkeztuko dute Iñigo Marquetek eta Fede Pachak; Karabeleko ekonekazaritza etxaldea ariko da Oier Iurramendi

bertako koordinatzailea; Lur Garden egitasmoa aurkeztuko du Iñigo Seguiolak; eta Bizi Baratzia izango du hizpide Jakoba Errekondok.

Hitzaldien ondoren, lore eta landareen aurrez aurreko kontsulta eskainiko dute Errekondok eta Seguiolak, bertaraten galderak eta zalantzak erantzuteko.

Eta azkenik, luntxa eskainiko dute, bertako eta garaiko produktu ekologikoekin. ||

HERNANI UDALA

Nerabeentzako eskaladan, gaur arte epea

Zenbait tailer antolatu ditu Hernaniko Udalak, nerabeentzat, irailaren zehar. Horrela, eskalada tailerra izango da Santa Barbaran, hilaren 9, 11, 13, 16 eta 18an, 16:30etatik 18:30etara; eta izena emateko, gaur da azkeneko eguna, kiroldegian. Doakoa da, baina 10 euroko fidantza utzi beharko da. Sormen tailerra, berriz, irailaren 10, 12, 17, 19 eta 24an egingo dute, Arramazka artistaren eskutik, ordutegi berean. Horretarako, etzi arte eman daiteke izena, Biterin, doan. ||

HERNANI KALERATZEAK STOP

Bihartik bilerak berriro, ostegunetan

Abuztuan atseden hartu ondoren, ostegunetako asanblada irekiei helduko diete berriro, Hernaniko Kaleratzeak Stopen. Bihar egingo dute aurrenekoa, arratsaldeko 19:00etan, elkartearen lokalean, Transpakarren (Latsunbe auzoa, 42). Etxebizitzaren arazoarekin kezkatuta dagoen edonork hartu dezake parte, eta norbaitek bere etxebizitzaren arazoa planteatu nahi badu, 18:00etan azaldu behar du, aurrez abixatuta telefonoz: 943 33 65 83 edo 604 112 740. ||

HERNANI JABETZE ESKOLAK

Aldaketa, eskalada tailerreko datetan

Atzo zabandu zen izenematea, aurtengo Jabetze Eskolen tailerretan: Plaza Feministan (Aristizabal kalea 7, behe), 943 33 70 17 telefonoan, edota *berdintasuna@hernani.eus* helbide elektronikoan. Ikastaroen artean dago, eskalada tailerra ere; baina hasieran emandako datetan, aldaketa izan dela jakinarazi du Udaleko Berdintasun Sailak. Horrela, irailaren 13an izango da aurreneko saioa, 11n beharrean; eta azkenekoa ez da izango hilaren 27an, 30ean baizik. ||

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak HIRU TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.

LOGIKALINE enpresak INFORMATIKO-PROGRAMADORE lanpostua bete behar du. Lana Abaltzisketan egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)